



BEREIZKETA SOZIALAREN ESKOLARI EZ !

HEZKUNTZA ZERBITZUA: DENENTZAT, PUBLIKOA ETA KALITATEZKOA !

Gobernuak, eskola logika kapitalista liberala, kontrola eta orden moralaren menpe ezartzea du helburu. Eskola merkantzia bat bezala kontsideratua da, ikaslea sobera kostatzen duen objektu bat bezala eta irakaslea logika horren zerbitzuko erabiltzen ahal den langilegoa bezala.

Aurten 11 200 postu kenduak izan dira (jaz kenduak izan ziren 11 000 postuetaz gain), haueri 2009an galduko diren 13 500 postuak gehitu behar zaizkielarik. Lan egiteko eta ikasleei arreta egiteko baldintzen txartze etengabea nabari dugu hor.

Lehen mailan: haurren egutegian bi oren kenduak izan dira, eta hori ez da programa arintzeko egina izan bainan programa pobretzeko baizik, berrikuntza pedagogiari atea hesten dion mami erreakzionario batekin, ulermena lortzearen orde z gogoz ikastea da helburua.

Bestalde, klase bakoitzeko ikasle kopurua handituz doa, zailtasunak dituzten ikasleak goizez, eguerdiz edo arratsez izan dadin, gainerateko orenekin galkatuak dira. Politika diskriminatzaile eta anti pedagogiko hori ikaslearen erritmoaren kontra doa. Zailtasunetan diren haurren laguntzarako sareak (RASED) desagertzekotan dira (11 000ren gain 3 000 kendu nahi dituzte); AVS (Auxiliaires de Vie Scolaire) eta EVSek (Employés de Vie Scolaire) prekaritate osoan eta ezagupenik gabe segitzen dute. Greba eskubidea murriztua da. Ikasleen fitxaketa martxan jartzen ari dira.

Bigarren mailan: eskola kartak ikastetxeen arteko ezberdintasunak azkartzen ditu. Gainerateko orenekin, postu kenketak ordezkatzeko egiazko helburua. klaseka ikasleen kopurua emendatuz doa; errentagarri ez diren opzioak desagertu dira; BAC pro-en orokortzeak BEPen desagertzea ekarriko du (eta, ondorioz, lizeo profesionaleetako postuen %25 galduko dira) hori guziaz zailtasun handienak dituzten gazteen kalteetan egiten da. Lan kontratu prekarioak gero eta gehiago aurkitzen dira. Eta ez da ez hortan bukatzen jakinez lizeoetako erreforma prestatzen ari direla datorren urteko, ikasgai batzuen desagertzea helburu... eta irakasleena bide beretik.

Irakasleen formakuntzari doakionez IUFM (irakasleen formakuntza instituto unibertsitarioak) desagertuko dira, irakasleek beharrezkoa duten formakuntza praktikoa deuseztuz.

Goi mailako irakaskuntzan: hemendik aintzina, unibertsitateetako merkaturia idekia da LRU legearen bidez, berriki hautatuak izan diren lehendakariak podererat heltzeko lehian hasten dira, unibertsitateetako gastuak emendatzen dira. Formakuntza entpresen pean aurkitzen da gero eta gehiago.

Euskararen irakaskuntzak segitzen du bigarren mailakoa izaiten. Murgiltze irakaskuntzak behar dituen baldintza bereziak ez dira oraindik kontuan hartuak: 14 postu falta dira aurten oraino. Eskoletan, buraso gero eta gehiagok eskatzen duen sistema elebiduna haur guzientzat Hezkunde Nazionalak segitzen du ukatzen.

LAB Erakaskuntzak azaroaren 20eko grebara deitzen du. Eskolaren deuseztatzeari aurre egiteko sektore guzietako irakasleak, gurasoak, lizeotarrak bai ikasleak egin ahal fite batzea eta antolatzea beharrezkoa da.

ATERABIDE BAKARRA, BORROKA!

- ➔ Postu kenketen kontra eta gainerateko orenen erabiltzetaren kontra
- ➔ Enplegu prekarioen politikari ezetz erraiteko eta langile guzien titularizazioa exijitzeko.
- ➔ Eskola guzietan euskara irakasteko eskaintza baita ere euskara eta euskaraz irakasteko medioak aldarrikatzeko.

LAB Irakaskuntza, 08/11/12